

### **BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK**

LORENZO ZUBILLAGA GOICOECHEA  
MARIA CRISTINA VAL SARDÓN  
AITZIBER OTAMENDI ECHARRI  
IÑAKI ELIZALDE ZUBILLAGA  
NEREA YEREGUI BALDA  
IGOR OTERMIN EGUIA

### **BERTARATU EZ DIRENAK**

ANDER PRADOS OTAMENDI

### **IDAZKARIA**

Joanes Aleman Olló

Betelun, udaletxeko bilkura gelan, 2026ko urtarrilaren 27an arratsaldeko zazpiak eta erdi direnean, Lorenzo Zubillaga Goicoechearen jaunaren lehendakaritzapean eta egintzaren fede ematen duen Joanes Aleman Olló idazkariak lagundurik ondoan aipaturiko zinegotziak elkartu dira.

Udal bilkura dagokion deialdiaren ondoren egin da, erreglamentuan ageri den aurrerapenarekin eta deialdia beraren eta gai zerrendaren ale bat udaletxeko iragarki oholean iragarri ondotik.

Ohiko izaera duen bilkura irekirik eta lehendakaritzak publikoa dela esanik; Idazkariak bilkura hasteko behar den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztaturik; gai zerrendan diren ondoko puntuak aztertzeari ekin zaio.

## **1. 2025-12-30EKO UDAL BILKURAKO AKTAREN ONARPENA**

Deialdiarekin batera banatu den 2025-12-30eko bilkurako aktaren inguruan udalbatzako kideren batek zerbait esateko duen galdetu du lehendakariak.

Zinegotzi bakar batek ere ez du deus adierazi.

Lehendakariak akta bozkatzera ekarri eta udalbatzak aho batez onartu du.

## **2. ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENAK:**

### **1. Ordainketa agindua**

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko abenduaren 31n, 91/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2025eko abenduaren 30ean egindako osoko bilkuran onartu ziren fakturak ordaintzea.

### **2.- Hostal Betelu SL**

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko abenduaren 31n, 92/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Diegaby Hostal SLri baimena ematea abenduaren 31tik urtarrilaren 1era eta urtarrilaren 5etik 6ra

bitarteko gauetan ixteko ordutegia 7:00ak arte (gehi taberna husteko denbora osagarria) luzatzeko.

### **3. Intzako karretera zenbakitzea**

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2026ko urtarrilaren 7an, 1/2026 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Beteluko Intzako karretera izeneko bide publikoaren zenbakitzea behin betiko onartzea.

### **4. Manantiales Betelu SA**

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2026ko urtarrilaren 8an, 2/2026 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Beteluko 2. Poligonoko 69. Lursailaren muga aldaketa (Irigoien kale aldera ematen duen aldean) katastro aldaketa onartzea.

### **5. Juan Manuel Garmendia**

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2026ko urtarrilaren 15ean, 3/2026 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Beteluko 1. Poligonoko 24. Lursailean dagoen Elizburua etxe barnean katak eta hondakinak kentzeko lanak egiteko hirigintza baimena ematea.

### **6. Gainbalio likidazioa**

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2026ko urtarrilaren 15ean, 4/2026 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko zergaren 1/2026 espediente zenbakia duen likidazioa onartzea.

### **7. 2. Poligonoaren 6. Lursailaren katastro aldaketa**

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2026ko urtarrilaren 16an, 5/2026 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Mikel Otamendi Ezcurdiak Lurralde Aberastasuneko Erregistroan jasota dagoen Beteluko 2. Poligonoko 6. Lursailaren mugen eta azaleraren mugaketa fisikoa aldatzeko egindako proposamena egitea ondorengo zentzu honetan: Bengoetxea etxearen bizkarraren (6. partzela) eta Beteluko 2. poligonoko 5. partzelaren arteko zerrenda azken horren zati bihurtzea.

### **3. BETELUKO 2. POLIGONOKO 93. LURSAILA ONDASUNEN INBENTARIOAN SARTZEA**

Beteluko 2. Poligonoko 93. lursaila udal artxibategian den ondasunen inbentarioan ez da ageri orain arte.

Nafarroako Toki Administrazioaren uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 112 eta 113 artikulua, Nafarroako Toki Entitateen Ondasunen Erreglamendua onartzen duen

urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuaren 73. eta hurrengo artikulua eta Hipoteka legearen idazketa ofizial berria onartzen duen 1946ko otsailaren 8ko Dekretuaren 206. artikulua kontuan harturik

Hau denagatik Udalbatzak honakoa onartu du:

Lehenengoa: Beteluko 2. Poligonoko 93. lursaila inbentariatzea honako ezaugarriekin:

2-93 lursaila: Hiri lurzoruan eta Beteluko Kale Nagusia 30 bisean kokatzen den izaera patrimonialeko Eskola zaharrak izenez ezaguna den eraikina. 199,00 metro karratuko azalera du. Sarrera kontuan harturik aurrealdetik, ezkerretik, eskuinetik eta atzealdetik kalearekin muga egiten du.

Eraikinak honako solairu hauek ditu: Behealdean udaleko biltegia (azaleraren %50) eta Zigari elkarteko biltegia, ofizina eta komunak (azaleraren %50) eta lehenengo plantan elkarte erabilera duen gunea. Eraikinaren kanpoaldean, ezkerrean, beheko solairuaren parean, zolatutako eremu txiki bat dago.

Ondasuna antzina-antzinatik da Beteluko Udalaren jabetzakoa eta ez da ageri jabetza erregistroari edo salmenta eskriturei buruzko dokumentaziorik

Udal inbentarioan dagoen hurrenkerari jarraituz, 1E 18 zenbakia ezarriko zaio.

Bigarrena: Aipaturiko ondasun higiezinaren inmatrikulazioa egiteko eskatzea Iruñeko 8 zenbakiduneko Jabetza Erregistroari, hipoteka-legearen idazketa ofizial berria onartzen duen 1946ko otsailaren 8ko Dekretuaren (13/2015 Legeak emandako idazketan) 206. artikulua ezarritako ondorioetarako.

Hirugarrena: Lorenzo Zubillaga Goicoechea Beteluko Udaleko Alkatea ahalduntzea akordio honetatik erator daitezkeen dokumentuak sinatzeko.

#### **4. KORRIKA 2026.**

Aurten egiten den Korrikaren 24. edizioa dela eta, Larraungo Aek korrikak adierazi du korrikaren lekukoa eramateko babesletzaren zenbatekoa 700 € + BEZ litzatekeela. Modu berean babesletza/hitzarmen kontratu bat sinatu beharra dagoela azaldu du.

Hau ikusirik, Beteluko udalbatzak honakoa ERABAKI DU:

Lehenengoa: Korrikaren 24. Edizioko lekukoa eramateko babesletza ematea.

Bigarrena: Aipaturiko hitzarmenaren eta beretik erator litezkeen dokumentuen sinadurarako eta formalizaziorako, Udalaren izenean aritzeko, Beteluko Udaleko alkate den Lorenzo Zubillaga Goicoechea jaunari ahalmena ematea.

Lehendakariak akordioaren berrestea bozkatzera ekarri eta Udalbatzak, aho batez, onartu egin du.

## **5. JASOTAKO IDATZIAK**

### **1.- Tüv Rheiland Navarra, s.a;**

TÜV RHEILAND Navarra, S.A.ri baimena ematen zaio 2026ko martxoaren 4an Beteluko nekazaritzako ibilgailuei eta ziklomotorrei aldizkako azterketa teknikoa egiteko udal-plaza erabiltzeko. Iragarki-taulan ikuskapenen datak eta ordutegiak jarriko dira.

### **2.- Nafarroa Oinez**

2026. urteko Nafarroa Oinez edizioa antolatzeko dirulaguntza eskaera egin dute Erentzun eta San Fermin ikastolek. Honen aurrean aho batez ZERA ONARTU DA:

270 euroko dirulaguntza ematea Erentzun eta San Fermin Ikastolei.

## **6. FAKTUREN ONESPENA**

	<b>KONTZEPTUA</b>	<b>ZENBATEKOA</b>
Euskal editorea	F. H 603602	510 €
Iberdrola	F. urberoa abendua	7,99 €
Iberdrola	F. Argiztapen publikoa abendua	542,03 €
Iberdrola	F. Udaleko pisua abendua	10,15 €
Gizarte zerbitzuetako mank.	F. Iturraskarri 2025	1.500 €
Vodafone	F. abenduko kontsumoa	212 €
Venus Campos Walsh	F. DFA 51 abendua	2.833,41 €
Wikai	F. 32569	112,10 €
Goierer	F. udaletxea abendua	1.188,45 €
IDM medical	F. 2423	131,07 €
Comercial Fervis	F. 46	89,88 €
Iberdrola	F. Alumbrado público	1.012,20 €
Maite Garcia Satrustegui	F. Eguberritako saskiak	210 €
Goierer	F. eskolako abendua	971,88 €
Amazon	F. Botikina (visa)	35,93 €
Amazon	F. Entxufea (visa)	49,99 €
Angelines Carrillo Ruiz	F. A20/2025	90 €
Urzubi	F. A1443	195,27 €
Euskara mankomunitatea	F. Eskualdeko aurrekontua %50	3.377,50 €
Euskara mankomunitatea	F. Aurrekontu orokorra %50	4.605,50 €
Toldos berriainz	F. Frontoiko lonak	2.819,30 €
Lorenzo Otamendi Artola	F. 1149 abendua	136,20 €
Leiku 2015 sl	F. 02.26	18.150,00 €

Plazaola partzuergoa	F. Mendialdeko azoka ibiltaria	145,23 €
Bambelaa	F. botikina (visa)	29,23 €
Hangzhou	F. ES65RUYABAEUS (visa)	49,99 €
Hangzhou	F. ES65RUYABAEUS (visa)	14,59 €
Chocarro y Urmeneta	F. emit 2605	5.227,20 €
Ofico	F. abenduko Aholkularitza	152,61 €
Dives Sum	F. ES6007VSMX82DS (visa)	18,10 €
Correos	F. gutun zertifikatuak	28,53 €
<b>SORGINTXO HAUR ESKOLAKO LEHEN ZIKLOA</b>		
Kide	F. 2585	416,24 €
Rosa Estanga Arrizubieta	F. Sorgintxo janaria abendua	46,35 €
Rosa Estanga Arrizubieta	F. Sorgintxo garbiketa abendua	26,40 €
Maite Garcia Satrustegui	F. Sorgintxo abendua bazkariak	585 €
Cartucho	F. (sorgintxoko kutxatik ordainduta)	59,96 €
	<b>DENETARA:</b>	<b>45.590,28 €</b>

Lehendakariak fakturak bozkatzera ekarri eta udalbatzan diren kide guztiek aho batez onartu egin dituzte.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 81.2 artikuluari jarraiki, Lehendakariak, premiazkotasunez, gai zerrendan ondorengo puntuaren inguruko akordioa sartzeko eskatu du: "Angelines Carrillok egindako eskaera".

Premiazkotasunaren zioak ondorengoak dira: Beteluko Udalak Asistencial Villa de Betelu SA zahar egoitza bereganatu duenez Angelines Carrillok eskatu du bere farmazia kontuan hartzea zahar egoitzaren hornidurarako. Herriko farmazia izanik, egoera hori lehenbailehen konpontzea komeni da.

Lehendakariak gai ordenean sartzeko akordioa berrestera ekarri eta udalbatzan diren kide guziten aldeko bozkarekin onartu da. Aldi berean, aldeko bozka hori udalbatzako legezko udalkideen gehiengo osoa da.

## **7. ANGELINES CARRILLOK EGINDAKO ESKAERA**

Angelines Carrillok eskaera aurkeztu du Beteluko Udalean. Beteluko Udalak zahar etxea kudeatzen duen Asistencial Villa de Betelu SA enpresa bereganatu duenez gero, zahar etxea medikamentuz eta osasun-hornidurez hornitzea eskatu du, herriko farmazia dela kontuan harturik.

Hau ikusirik, Beteluko udalbatzak honakoa ERABAKI DU:

Eskaera aintzat hartzea eta hortaz, ahal den neurrian eta legezko arauen barnean, zahar etxearendako beharrezkoak diren osasun produktuak Angelines Carrilloren farmaziatik hornitzea.

Lehendakariak akordioaren berrestea bozkatzera ekarri eta Udalbatzak, aho batez, onartu egin du.

## **8. GALDERAK ETA ESKAERAK**

Ez da ez galdera ez eta eskaerarik egin.

Arratsaldeko zortzi eta erdiak direnean, bilkura amaitu eta altxatu egin da, idazkaria naizen honek ziurtatzen dudana.